



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA  
ETXEBIZITZA SAILA  
Ingurumen Sailburuordetza  
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA  
Viceconsejería de Medio Ambiente  
Dirección de Administración Ambiental

**EBAZPENA, 2020KO URTARRILAREN 30EKOA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, ORDIZIAKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN IRISMEN-DOKUMENTUA EMATEN DUENA.**

**AURREKARIAK**

2019ko irailaren 9an, Ordiziako Udalak Ordiziako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera egin zuen, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta ingurumen-ebaluazioari buruzko Legeak (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) xedatutakoarekin bat etorritz.

Halaber, EAED-043 Ordiziako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra espedientearen esparruan egindako administrazio-izapideak baliozkotzat jotzeko eskatu du Ordiziako Udalak. Plan horri dagokionez, Ingurumen Administrazioaren zuzendariak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua formulatu zuen 2018ko martxoaren 7ko ebazpenaren bidez.

Aurkeztutako eskaera aztertu ondoren, ondorioztatu da ezen ingurumen-organoak ez duela eragozpenik eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunen kontsulta-izapidea kontserbatzeko eta espediente berri honetan sartzeko, 2017ko abenduaren 22ko EAED-043 espedienteari lotuta. Tramite hau da abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoa.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, bat etorrita hala abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluekin eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluekin.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenen ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarririk ezartzea eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasangarri bat sustatzeko helburuarekin.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikuluan arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek behar bezala bermatuko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko efektuei buruzko analisia, hautabide egokienak hautatu ahal izateko; betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaila eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, bai eta haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko esparrua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzoruen erabilerari.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskinetik A) letran jasotako planei lotuta, eta Ordiziako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra dago plan horien artean.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek eskabideari erantsi beharreko dokumentuak xedatzen ditu 18.1 artikuluan, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak (Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) 8. artikuluan zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukari buruzkoak, hurrenez hurren.

Adierazitako guztia aintzat hartuta, espedienteko txostena aztertu da eta honako hauek ere aintzat hartu digu: otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra (Euskadiko Ingurumena Babestekoa), abenduaren 9ko 21/2013 Legea (Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa), urriaren 16ko 211/2012 Dekretua (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena), apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena), urriaren 1eko 39/2015 Legea (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena), urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Hori eginda, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

**Lehenengoa.-** Ordiziako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikusketaren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua ematea, ingurumen-ondoreetarako soilik eta honako baldintza hauen arabera:

#### **1. Planaren Xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena**

Planaren xedea da Ordiziako udalerraren antolamendu orokorra egitea. Herriaren udal-mugartearen azalera 5,68 km<sup>2</sup>koa da gutxi-gorabehera. Hiri-garapen jasangarriaren printzipioekin bat eginez, irizpide hauek hartu dira: egun dauden hiri-hutsuneak betetzea, hiri-ingurunean zaharkituta, behar bezainbeste eraiki gabe edo okupazio txikiegiarekin dauden kokaguneak betetzea eta hiri-garapenean lurzorua baliabidea arrazionaltasunez eta optimizazioz erabiltzeko irizpideak baliatzea. Arrazoi horregatik, hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarriaren azaleraren igoera minimo bat aurreikusten da. Hautatutako ereduak, halaber, herria udalerriaz gaindiko ingurunean integratzearen alde egiten du, eskualdean sortzen diren sinergietan parte hartuz.

Planean, gainera, oinarritzko parametro batzuk proposatzen dira bizileku kopuruari, jarduera ekonomikoari, zuzkidura publikoari eta hirigintzako araubideari buruz, bai eta antolamendurako alternatibak proposatzen dituen orientazioko informazio grafikoak ere.

Planak udal-mugarte guztia zonifikatzen du, erabilera globaleko eremuen egituraketa honen arabera:

##### A. Bizitegi-eremuak.

- A.1. Bizitegi-kokagune zaharrak.
- A.2. Eraikuntza irekiko bizitegi-eremuak.
- A.3. Garapen txikiko bizitegi-eremuak.

##### B. Jarduera ekonomikoetarako eremuak.

- B.1. Industrialak.
- B.2. Jarduera ekonomiko estrategikoak.

##### D. Landa-eremua.

- D.1. Babes bereziko eremua. Kontserbatu beharreko baso naturalak.
- D.2. Nekazaritza- eta abeltzaintza-lurrak eta landazabala.
  - D.2.1. Balio estrategiko handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-lurrak.
  - D.2.2. Trantsiziozko landa-paisaia.
- D.3. Basoak.
- D.4. Ingurumenaren hobekuntza. Baso naturalak berreskuratzea.
- D.5. Azaleko uren babesa.

##### E. Komunikabide-sistema orokorra.

- E.1. Bide-sarea (SG).
- E.2. Trenbide-sarea (SG).
- E.3. Komunikabideetarako erreserba (SG).

##### F. Espazio libreen sistema orokorra.

- F.1. Hiriko gune libreak (SG).
- F.2. Landa-eremuko aisialdi-eremuak (SG) (R1 alternatiba).

G. Komunitate-ekipamenduko sistema orokorra.

G.1. Komunitate-ekipamendua (SG).

H. Zerbitzu-azpiegituren sistema orokorra.

H.1. Zerbitzuen azpiegiturak (SG).

Hirigintza-antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileen zerrenda honako hau da:

C. Hirigintza-antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileak:

C.01. Naturagune babestuak: ES2120005 Ori Garaiko Kontserbazio Bereziko Eremua.

C.02. Intereseko landarediak.

C.03. Hezegunea: Altamirako urmaela.

C.04. Korridore ekologikoak.

C.05. Abifauna mehatxatua babesteko eremuak.

C.06. Paisaia-babeseko eremuak.

C.07. Garrantzi geologikoko eremuak: Oriako terraza esekia.

C.08. Balio estratergiko handiko nekazaritza-lurak (R1 alternatiba).

C.09. Interes kulturaleko eremua: Galardi tumulua.

C.10. Higatu daitezkeen eremuak.

C.11. Uholde-arriskuko eremuak.

C.12. Lurra kutsa dezaketen jarduerak egiteko lekuak.

C.13. Arrisku teknologikoak.

C.14. Zonifikazio akustikoa.

C.15. Oiangu-Lazkaomendiko aisialdi-eremua (R2 alternatiba).

Hiri-antolamenduko proposamen orokor bezala lau alternatiba aurkezten dira:

- A alternatiba, 0 alternatibari dagokiona, hau da, jarduketarik ez egiteari; indarreko antolamenduaren proposamenak baliozkotzea proposatzen du, egokitzeko doikuntzak eta izapidetze-fasean dauden hirigintzako dokumentuetan jasotako aurreikuspenak bakarrik sartuz.
- B alternatibak (hiri-erlaldaketa eta -berroneratzea) proposatzen du indarreko antolamenduaren xedapenak finkatzea nolabaiteko garapena duten eremuetan (Upabi, Agarre eta Oiangualde) eta zaharkituta dauden edo gabeziak dituzten hiri-eremuak berroneratzea.
- C alternatibak (hiri-zentralitate estratergikoa. Egungo trenbide-sarea) ukitutako lurzoruak birkalifikatzea eta erabilera eta intentsitateen arautzea aldatzea proposatzen du. Horrela, Beasain, Ordizia eta Lazkao elkartzen diren eremua (Agarre, Oiangualde, San Bartolome) eraldatzea eta berroneratzea lortzen da. Bizitegiatarako, jarduera ekonomikorako eta eskualde mailako zuzkiduretarako lurzoruen eskaintza garrantzitsua sortuko litzateke horrela.
- D alternatibak (hiri-zentralitate estratergikoa. Trenbide-saihesbidea) gaur egun herriaren hegoaldean dagoen trenbide-azpiegitura herrigunetik lekualdatzea proposatzen du, Bustuntzatic (Ordizia) azoka gunera (Beasain) arteko saihesbide bat eraikiz. Horrela hiri-erlaldaketa eta -berroneratzeko operazio integrala egingo litzateke.

C eta D alternatibek hobekuntzak dauzkate mugikortasunaren arloan: (N1eko sarbidea hobetzea, bi biribilgune eraikita, eta Ordizia eta Lazkao lotzeko bide bat egitea Oiangu aldean).

Bestalde, planean jasotako ingurune fisikoa antolatu eta arautzeko proposamenak bi alternatiba ditu udalerrriaren hegoaldeko landa-eremurako. Alternatiba horiek honela identifikatu dira: «R1 alternatiba» (Oiangu-Lazkaomendi parkea espazio libreen eremu orokor gisa kalifikatzea) eta «R2 alternatiba» (parkearen eremua gainjarritako baldintzatzailetzat jotzea).

**2. Ingurumen-helburu estratergikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak.**

Plana egiteko funtsezko oinarri gisa, oro har onartutako araudi, estratergia eta programetatik eratorritako helburu estratergikoak eta jarduera-ildoak hartuko dira; honako hauetatik, hain zuzen ere:

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko orokorra.

- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programa.
- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020.
- EAEko Biodibertsitate Estrategia 2030.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako Geodibertsitate Estrategia.
- 2050erako Klima Aldaketaren EAEko Estrategia.
- Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako garapen jasangarriko printzipioak (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen du Dekretuak).
- Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren arabera ezarritako kalitate akustikoko helburuak (EAEko hots-kutsadurari buruzkoa da Dekretua).

Zehazki, ingurumen-helburu estrategiko, printzipio eta jasangarritasun-irizpide hauek aplikatuko dira HAPOa egiteko:

1. Egungo belaunaldien beharrak ziurtatuko dituen garapen jasangarria bermatzea, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrei aurre egiteko ahalmena arriskuan jarri gabe.

- Lurzoruaren okupazioa moteltzea, eta horretarako lehendik artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera lehenestea, degradatutako espazioen biziberritzea eta berrerabilera bultzatzea, eta balio agrologiko eta natural handia duen lurzoru urbanizaziotik babestea.
- Pertsonen eta salgaien mugikortasun jasangarriko hiri-ereduak bultzatzea.
- Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentsu, trinko eta komplexuen bidez.
- Ingurumeneko eraginak minimizatzea, jardueren ondorioak aurrez ebaluatuz.
- Landa-ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea, nekazaritzaren eta ingurumenaren arteko oreka zainduz eta bultzatuz.
- Lurraldeko energia, ura, hondakinak eta lurzoruen erabilera arduratsua sustatzea.

2. Kapital naturala babestea, zaintzea eta leheneratzea, eta ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuak zaintzea. Biodibertsitatearen galera geldiaraztea.

- Udalerriko biodibertsitatea babestea, horretarako biodibertsitatearen osagaiak modu jasangarrian erabiltzen direla zainduz, ingurumenaren baliabideen erabileratik ateratako etekinetan parte-hartze justua eta bidezkoa lortzeko.
- Kontserbazio-eskakizunak, erabilera jasangarria eta natura-ondarearen hobekuntza eta leheneratzea eta biodibertsitatea hirigintzako plangintzan integratzea, ingurumena babestea hirigintza-antolamenduaren gainetik lehenesteko legezko printzipioa kontuan hartuta.
- Habitaten eta populazio biologikoen galera eta degradazioa gelditzea, eta horien kontserbazio-egoera hobetzea, lurralde erresiliente eta multifuntzional baterantz aurrera egiteko.
- Ondare geologikoaren kontserbazioa indartzea, eta, horretarako, ondare hori hirigintzako plangintzan eta ingurumena prebenitzeko prozeduretan txertatzea.
- Udalerriko paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- Saihestezin gisa ebaluatutako kapital naturalaren galerak konpentsatzea, eta konpentsazio horretarako beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea.

3. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.

- Intermodalitatea eta berotegi-efektuko gas gutxiago igortzen dituzten garraio-bideak bultzatzea.
- Klima-aldaketarekiko erresilientea, konpaktua eta erabileran mistoa den hiri-egitura bultzatzea.

4. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.

- Arrisku naturalak dituzten lurzoruen urbanizazioa geldiaraztea (uholdeak, akuiferoen ahultasuna, erosioa).
- Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioekin bat etorritik, airearen kalitatea ziurtatzea bai kanpoan bai barnean (zarata barne), eta zarata handiekiko esposizioa duen biztanleria murrizten dela bermatzea.
- Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduera indartuz.

Era berean, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

### 3. Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

Plana aplikatzeko eremu geografikoa Ordiziako udal-mugartea izango da. Ordiziako udalerrria Gipuzkoako lurralde historikoaren hegoaldean dago, Aralar mendilerrotik gertu, eta Oria ibaiak zeharkatzen du mendebaldetik ekialdera.

Ordiziako udal-mugartearen lurralde-eremuaren barruan, ingurumen-balio nabarmenak dituzten eta katalogo eta inbentario hauetan jasotzen diren beste gune batzuk daude:

- Oria Garaiko Kontserbazio Bereziko Eremua KBE (ES212005): Zaldibia ibaia.
- EAEko Hezeguneen Inbentarioa: Altamirako urmaela
- EAEko korridore ekologikoen sarean zerrendatutako espazioak: Murumendiko lotunearen eta Ernio-Gazume, Aralar eta Izarraitz arteko korridorearen inguruko moteltze-eremua, eta Aiako Harriaren eta Aralarren arteko korridorea).
- Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EE Zuzentarauaren I. eranskina), eta, bereziki, lehentasunezko habitatak, Natura 2000 Saretik kanpo.
- EAEko Basoen Inbentarioan jasotako baso naturalak eta erdinaturalak.
- Mehatxatutako flora edo faunako espezieen banaketarako interes berezia duten eremuak, Mehatxatutako Espezieen EAEko Katalogoan jasotakoak.
- Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarritako hegazti mehatxatuentzako beste gune interesgarri batzuk. Agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta abifaunaren babes-eremuak —non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatutako edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitiren— argitaratzen dira.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazioko Plan Hidrologikoaren lurrazaleko ur-harguneen babes-eremuen erregistroan udalerriaz gaindiko ur-hargune bat identifikatzen da Arriarango hornidura-sisteman integratuta, Mariarats errekan.

Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak dira balio agrologiko handiko lurrak, jabari publiko hidraulikoa eta lurraldeko edo sektoreko plangintza baten ondorioz babes-araubideren bat duten naturaguneak (batik bat Ibaiak eta Errekak Antolatutako LPSa, Hezeguneen LPSa eta Nekazaritza eta Basogintzako LPSa).

Kultura-ondarearen ikuspegitik, badira Ordizian ondare historiko-arkitektonikoko eta ondare arkeologikoko ondasunak, bai eta ustezko arkeologia-eremuak ere, katalogoetan edo inbentarioetan sartutakoak.

Ingurumen-arrisku nabarmenak dituzten edo izan ditzaketen eremuen artean, aipatzekoak dira uholde-arriskua dutenak (Alkarte, San Juan, Txindoki eta San Bartolome), lurzorua kutsa dezaketen jardueren kokaleku diren edo izan diren eremuen eraginpean daudenak (San Bartolome eta Txindoki) eta kalteak edo eragozpenak eragin ditzaketen maila akustikoak dituztenak (San Bartolome eta Agerre).

### 4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak.

Ez da eremu desegokirik aurkitu Planak proposatutako jardueretarako edo erabileretarako, baldin eta justifikatzen bada proposamenak bateragarriak direla indarreko legeriarekin, eta ez badira gainditzen oro har onartzen diren arau edo azterlan teknikoetan ezarritako muga-balioak edo gida-balioak.

Besteak beste, honako hauekin izan beharko dira bateragarriak:

- 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituena.
- 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, hainbat plan hidrologiko berrikustea onartzen duena, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa, adibidez.
- 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatutako Lurraldearen Arloko Plana behin betiko aldatzea onartzen duena.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 4/2015 Legea, ekaiaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

## 5. Egindako aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterian laburra.

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta-izapidean jaso diren txostenetako ingurumen-arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

- Identifikatu eta zerrendatu dira natura-ondarean eragina duten irizpide jasagarriak, plana egitean kontuan hartu behar diren horiek.
- Zaldibia ibaia identifikatzen da Oria Garaiko KBeko elementu bezala, eta adierazten da Txindoki eta Alkarte eremuetako garapenek eragin hautemangarria izan lezaketela kontserbazio-helburuetan. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da ingurumen-azterketa estrategikoak ebaluazio egoki bat egitea, 92/43/EEE zuzentarauak (6.3 art.) eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeak ezarritako terminoetan.
- Altamirako urmaela inbentariatutako hezegune bezala identifikatzen da, eta balorazio positiboa ematen zaio gainjarritako baldintzatzailatzat hartzeari.
- Zaldibiako eremu bisuala planean proposatutako paisaia-babeseko eremuen gainjarritako baldintzatzaille izendatzea gomendatzen da.
- Batasunaren intereseko habitatekin loturan kontuan hartu beharreko alderdiak identifikatzen dira, lehentasunekoak zein ez, bai eta arriskuan dauden flora eta fauna espeziak ere. Nabarmendu egiten da Ingurumen-azterketa estrategikoak intereseko landare-formazioen eremuak zehaztasunez aztertu behar dituela, bai eta horiek kontserbazio-egoera ere, Agerren aurreikusitako garapenek eraginaren irismena eta garrantzia zehazteko.
- Udalerrian dauden interes ekologikoko lotura-elementuak identifikatzen dira, eta oso balorazio positiboa ematen zaio planean beste lotura-elementu batzuk gainjarritako baldintzatzaille bezala txertatzeko proposamenari.
- Aldeko balorazioa ematen zaio Oriako terraza esekia interes geologikoko eremuetako gainjarritako baldintzatzaille bezala sailkatzeko aukerari.
- Adierazten da Donejakue bidearen zatiak bete egin behar dituela Donejakue bidea monumentu-multzoaren babes-araubidearen zehaztapenak.
- Arkeologia-eremuen zerrenda bat aurkezten da (ustezko arkeologia-eremuak eta babesteko proposatutako arkeologia-eremuak) eta adierazten da eremu horietan eragina izan lezakeen edozein obra egin aurretik azterketa arkeologiko bat egin beharko dela.
- Uholde-arriskuko eremuetan (Alkarte, San Juan, Txindoki eta San Bartolome) garapen-proposamenak dituzten eremuak identifikatzen dira, eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren araudiak uholde-arriskuko eremuetako erabilerei dagokienez ezartzen dituen baldintzak zerrendatzen dira.
- Jabari publiko hidraulikoaren eremuan eta haren babes-zerrendetan izan daitezkeen eraginei buruzko irizpideak eta jarraibideak adierazten dira. Agarren planteatutako alternatibei dagokienez, adierazten dute behin betiko diseinuak errekaren egungo trazadura aldatzea saihestu behar duela, eta ibaiertzetan dagoen landaredi naturala kontserbatu behar duela.
- Oinezkoentzako zubi edo pasabide berrien diseinuari dagokienez, Kantauri Ekialdeko Demarkazioko Plan Hidrologikoaren 43. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

## 6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu behar diren funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ingurumen-azterketa estrategikoak (IAE) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko da. Aurrekoaren arabera, eskatutako edukiek eduki eta egitura hau izan beharko dute:

1. Proposatutako planaren deskribapena
  - 1.1. Piangintzaren esparrua eta helburuak
  - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
  - 1.3. Planifikatzeko aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
  - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
  - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa.
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da IAEk hurrengo alderdietan sakondu behar duela, gutxienez, jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

### **6.1. Proposatutako planaren deskribapena.**

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratu duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen efektu kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

#### **6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak:**

- a) Zehaztuko da zer arau-esparruk arautzen duen Plana onartzeko prozedura, eta behin betiko onespeneren sustatzailea, organo sustatzailea eta organo substantiboa identifikatuko dira.
- b) Identifikatuko da ea zer plan edo programa dauden hierarkikoki Planaren gainetik, zeinaren helburu eta zehaztapenak haren bidez garatzen baitira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak. Plana baino hierarkian gorago dauden plan edo programen onarpen-egintza eta data adieraziko dira, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin zaian ala ez. Gutxienez, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), LAGak aldatzea bizitegi-kuantifikazioari dagokionez.
- Beasain-Zumarragako (Goierri) eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. Lurzoru urbanizaezinen antolamendua zehaztean, kontuan hartuko dira LPS horrek ezartzen dituen gidalerroak eta araudia; bereziki balio agrologiko handiko lurzoruei eta erabilgarritasun publikoko mendiei dagokienez.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Errepideen Bigarren Plan Orokorraren (2005-2016 aldia) berrikusketak eta EAEko Errepideen Hirugarren Planaren zirriborroa (2017-2028).
- Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren Lurralde Plan Sektoriala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki urak har ditzakeen zonei lotutako zehaztapenak eta Babestutako Eremuen Erregistroa.

- c) Planaren helburu zehatzak deskribatuko dira.
- d) Hierarkian Planaren gainetik dauden planek edo programek ingurumena babesteko izan ditzaketen irizpideak, helburuak eta zehaztapenak zehaztuko dira, planari aplikatzekoak badira.
- e) Plan edo programa horiei hierarkian gorago dauden ingurumen-ebaluazioko prozeduraren bat ezarri bazaie, prozedura horiei amaiera eman zieten ingurumen-adierazpen estrategikoen datak eta jaulkipen-egintzak aipatuko dira, eta adieraziko da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren eta zer estekatan kontsulta daitezkeen. Kasu horretan, planaren helburuan edo eremuan eragina duten ingurumen-ebaluazioaren adierazpen horien zehaztapenak zehaztuko dira, bai eta ingurumen-adierazpen estrategikoetan edo bere garaian indarrean zegoen araudia aplikatuz igorritako dokumentu baliokideetan ezarritako ingurumen-ebaluaziorako irizpideak ere.
- f) Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta estrategietan, baita Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan (erkidegokoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak) ere, Plana diseinatzeako aplikagarriak direnean. Espezifikoki justifikatu beharko da txosten honen 2. atalean jasotako ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak nola bete diren.

#### **6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena.**

- a) Planean garatzen den plangintza mota adieraziko da, egiturazko antolamenduari edo antolamendu xehatuari dagokion neurri edo jarduketak zehaztuta.
- b) Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektuen ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da. Epigrafe honetan jasotako informazioak isla kartografiko egokia izango du eskala egokian, eta lurraldearen erabilera erakutsiko du.
- c) Ingurumenean eragin dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta lokalizatuko dira, garrantzitsuenetatik garrantzi gutxiago dutenetara hierarkizatuko dira, kokapen zehatza, izaera, tamaina, funtzionamendu-baldintzak eta baliabide naturalen kontsumoa kontuan hartuta. Deskribatzen den Planeko ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio, eta kode hori erreferentzia behar duten IAEko hurrengo apartatuetan erabiliko da.

Epigrafe honetan jasotako informazioak isla kartografiko egokia izango du eskala egokian, eta lurraldearen erabilera erakutsiko du, bai eta ingurumenean ondorio esanguratsuak eragin ditzaketen Planeko ekintzak, aurreikuspenak eta jarduketak ere. Hala badagokio, informazio kartografikoa jaso beharko da proiektuen kokapen eta tamainari buruz.

- d) Planarentzako aurreikusitako garapena adieraziko da, Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da nola egin plana garatzeko tresnen ingurumen-ebaluazioa.
- e) Nolanahi ere, Plana garatzeko denbora-aurreikuspen bat txertatuko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan deskribatutako ekintzetarako zehaztuko da.

### **6.1.3. Planifikatzeko aukerak.**

- a) Azaletik deskribatuko da zer aukera ezberdin hartu den kontuan Plana emateko prozesuan. Aukera horiek teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak izan behar dute, eta honako alderdi hauei buruzkoak izan daitezke: kokapena, garapen teknikoa edo teknologikoa, denbora-garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi.
- b) Aukera horien irismena deskribatuko da, aukera bakoitzetik ondorioztatzen diren Planeko proiektu eta ekintzen arteko desberdintasunak argi eta garbi adieraziz, IAEn 6.1.2 c) apartatuan deskribatzen diren ekintzekin alderatuta.
- c) Kontuan hartutako plangintza-aukerak baztertzeko eta proposatutako aukera azkenik hautatzeko arrazioen laburpena ere bilduko da.
- d) Behar denean, kontuan hartu diren aukerak modu kartografikoan jasoko dira.

### **6.2. Ingurumenaren egungo egoeraren ezaugarriak zehaztea.**

Deskribatuko da ingurumen-kalitateko zer elementu dauden Planaren eraginpeko eremuan. Elementu abiotikoak eta biotikoak deskribatuko dira, bai elementu mota bakoitzaren sektore-ikuspegitik, bai haien interakzioen ikuspegitik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanaz.

Planaren eraginpeko esparrutzat, antolamendu-esparru osoaz gain, haren ingururik hurbilena hartu behar da, Planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara mugatuta.

Ingurunearen kalitateari buruzko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta izenburua, urtea, egilea eta, hala badagokio, lana bere osotasunean kontsulta daitekeen gunerako esteka adieraziko dira.

IAEk: planoak jasoko ditu, eskala egokian, eta ingurunearen aldagaiak jasotzen dituztenak.

#### **6.2.1. Ingurumen-egoera deskribatzea**

- a) Ingurune fisikoa. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: arroka ama eta lurpe mota, iragazkortasuna, urrakortasuna, masak eta ur-guneak, klimaren inguruko alderdiak eta lurzoru mota.
- b) Natura-ondarea. Adieraziko da ea dagoen natura-intereseko eta interes ekologikoko elementurik: landaredia, baso autoktonoak, habitat interesgarriak, basoko flora eta fauna, ondare geologikoa, korridore ekologikoak, hezeguneak, onura publikoko mendiak eta babesleak.  
Ahal denean, datu kuantitatiboak emango dira, hala nola azalera, populazioaren tamaina, bikote edo banakoen kopurua eta garrantzi erlatiboa EAEko edo haren banaketa-eremu naturaleko populazio osoaren azalera eta tamaina osoari dagokionez. Halaber, honako hauei buruzko datuak emango dira: kontsebazio-egoera, interes-maila, kalteberatasuna, egungo presio eta mehatxuak eta Plana gauzatzerakoan areagotu daitezkeenak.  
Apartatu hau egiteko, natura-iritereseko elementuen inbentarioak, katalogoak edo erregistroak berrikusiko dira (plan hidrologikoetarako eremu babestuen erregistroak, hezeguneen inbentarioak, baso-inbentarioak, mendien katalogoak edo espezieen zerrenda gorriak, besteak beste).
- c) Paisaia. Kontuan hartuko dira paisaia-intereseko guneak, hala nola mugari bisualak eta pertzepzioaren ikuspuntutik interesgarriak izan daitezkeen beste elementu batzuk. Paisaia-katalogoak erabiliko dira, halakorik egonez gero.
- d) Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Uholdeak izateko arriskuari, lurpeko uren kalteberatasunari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatu beharreko beste edozein ingurumen-arriskuri buruz bildu ahal izan diren datu guztiak aurkeztuko dira.  
Halaber, deskribatuko da zer ingurumen-arazo zintze-man den airearen, uraren edo lurzoruaren kalitatean, egoera akustikoa barne. Identifikatuko da ea kutsagarriak izan daitekeen iturririk dagoen eta kutsagarriak izan daitezkeen



jarduerak jasan duen lurzorurik dagoen, eta aztertuko da zein den baliabide naturalen erabijarritasuna, bereziki urarena.

- e) Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes maila adieraziko dira. Era berean, aurkeztuko da zein den kultura-ondasunari kalifikazioa eta babes ematen dizkion arau-xedapena ere. Kontuan hartuko dira ondare immaterialeko elementuak.

### **6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak.**

Aurreko atalean azaldutako deskribapen eta datuetan oinarrituta, ebaluazio-eremuko ingurumenaren egungo egoera aztertuko da, eta labur-labur jasoko dira ingurumen-ebaluaziorako prozesuan garrantzitsuak diren ingurumen-alderdiak. Zehatz-mehatz adieraziko da zer ingurumen-alderdik jasan dezaketen etorkizunean Planeko ekintzen eragina.

Horregatik, jakin beharko da ea oinarritzko prozesu ekologikorik dagoen, eten edo aldatu daitekeen Plana gauzatzean. Arreta jarri beharko da ingurumenari dagokionez interesgarriak diren eremu, elementu edo egoeretan, baita eragina jasan dezaketen alderdietan ere, eta kontuan hartuko da non kokatuko diren eta zer ezaugarri izango dituzten planaren ondorioz sortuko diren proiektu edo ekintzek. Saihestuko da xehetasunez deskribatzea zein diren Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak ez diren alderdiak, eta ahalegin handiagoa eskainiko zaie ingurumen-arloko elementu, prozesu, arazo eta arrisku garrantzitsuei.

Kontuan hartuko da ingurumen fisikoaren zer faktorek eragin dezakeen edo garrantzitsu izan daitekeen Planean aurreikusitako proiektu eta ekintzen efektuak ebaluatzeko, hala nola ur-masen eta ur-guneen egoera, lurzoruen gaitasun agrologikoa, substratuaren iragazkortasuna eta egonkortasuna, eta ebaluazioan kontuan hartu beharreko ingurune abiotikoaren beste edozein alderdi.

Arreta jarriko zaie espezieen funtzio ekologikoei eta ziklo biologikoari eusteko garrantzitsuak diren eremu eta habitatei (elikatzeko, ugaltzeko, atseden hartzeko, sakabanatzeko edo populazioen arteko truke genetikorako garrantzitsuak diren eremuak). Kontuan hartuko da lehenetsutako habitat eta espezieak daudela, bakanak edo gutxi ordezkatuak, kalteberak edo desagertzeko arriskuan daudenak eta, beraz, babestu beharrekoak.

Era berean, natura-ingurunea eta paisaia babesteko beste alderdi batzuk ere hartuko dira kontuan.

Halaber, arrisku jakin bat prebenitzeko edo murrizteko aurreikusitako plan edo proiektuei buruz eskura dagoen informazioa emango da, bai eta ingurumen-arriskuei eta hautemandako egoera problematikoei dagokionez ezagutzen den edozein administrazio-jarduerari buruzkoa ere, arreta berezia jarrita Plana gauzatzean gehitu, areagotu edo beste bitarteko batzuetara transferitu daitezkeen gaietan.

Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria eta abar.

### **6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondoreak.**

Apartatu honetan, identifikatu eta baloratu beharko da Planak zer efektu aurreikusteko modukorik duen IAEn 6.2. apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira.

Planaren efektuak identifikatu eta ezaugarritzeko, aztertuko da zer interakzio dauden lanean aurreikusitako ekintzen eta haiek eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, eta zer ingurumen-arazo edo arrisku sortu edo areagotu daitezkeen.

Ezaugarriak deskribatzean, zehatz-zehatz adierazi beharko da zer motatako efektuak diren, honako hauek berezita: bigarren mailako efektuak, metatzekoak, sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta behin-behineko efektuak.

IAEn 6.1.2.c) apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ondoriozko ingurumen-efektuak deskribatuko dira, eta espresuki adieraziko da zer kode esleitu zaion ekintzei apartatu horretan. Hala dagokionean, argi eta garbi adieraziko da zer efektu eragin dezakeen ekintza bat baino gehiago bateratzeak.

Era berean, biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan ditzakeen edozein ingurumen-izaerako efektu bereziko da.

Planari lotutako karbono-aztarna ebaluatuko da.

Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- a. Gertatzeko zer probabilitate duten, zenbateko iraupena eta maiztasuna izan dezaketen, eta itzulgarriak ote diren.
- b. Efektuen larritasuna eta irismen espaziala (adibidez, zenbateko azalera har dezaketen eraginpean).
- c. Eragina jasan lezakeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
  - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri bereziak izatea.
  - IAEko 6.2.1 apartatua jasotako babes-espazioen urrakortasuna, kontuan hartuta zer efektu izan ditzaketen zaindu beharreko elementuetan (habitatak, espezieak eta prozesu ekologikoak) eta zein neurritan oztopa edo eragotz dezaketen Planak kontserbazio-helburuak lortzea.
  - Ingurumen-baldintza txarrak egotea, aire, ur edo lurzoruan kalitate-estandarrak edo muga-balioak gainditu ahal izateko.
  - Planak zein neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, efektuak kuantifikatuko dira, datu neurgarriak emanez Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzeak eragiten dituen ingurumen-faktore deskribatuen egoera-aldaketei buruz. Hala badagokio, efektu horien iragarpenean dagoen ziurgabetasun-maila adieraziko da.

Halaber, ahal bada, efektuak kartografia bidez lokalizatuko dira; halaber, zehaztu egingo da plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen, aurreikuspenen arabera.

Adieraziko da ea antzemandako efektu horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein den eraginpeko plangintza-tresna.

Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa) 23. artikuluan ezartzen duena kontuan hartuta, HAPOko eremuaren zonakatzeko akustikoa egin beharko da, dekretu horren 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako eremu akustikoak aintzat hartuz, eta zonakatzeko hori erakusten duen plano txertatu beharko da hirigintzako dokumentuetan. Aurreikusitako erabilerarako ezarritako kalitate akustikoaren helburuak betetzen diren aztertuko da, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan araututako metodologia erabiliko da.

Hierarkizatu egingo dira hala deskribatutako ingurumen-efektuak, eta nabarmenduko da haien garrantzi erlatiboa.

#### **6.4. Babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurriak.**

Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi diren IAEren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko.

Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-efektu garrantzitsurik sortuko Planean ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak, kultura- eta paisaia-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoak hobetzea eta egokitzea.

Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurriak deskribatuko dira, eta prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi den efektu bakoitzarekin erlazionatuko dira, espresuki aipatuta IAEren 6.3 apartatuan horretarako esleitutako kodea.

Deskribatzen den neurri bakoitzari kode bat esleituko zaio, eta kode hori IAEko hurrengo apartatuetan erabiliko da, erreferentzia erabili behar bada.

Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki adieraziko da Planaren zein dokumentu teknikotan jaso diren.

Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, komenigarri edo egingarria denean haiek aplikatzea plangintzaren geroagoko fase edo etapetan edo Plana gauzatzeko etorkizunean diseinatuko diren proiektuetan.

Kostu ekonomikoren bat dijakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere bilduko da, eta adieraziko da nor den haiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona.

#### 6.5. Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programak Planaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurriak jasoko ditu. Neurri horiek alderdi hauek kontrolatzeko jomuga izan beharko dute:

- Gainbegiratzeko behar bezala ezartzen diren ala ez neurriak, Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak aurreikusteko, murrizteko edo zuzentzeko aurreikusita daudenak.
- Zaintzeko zein den ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera eta plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera.
- Egiatzatzeko zein diren Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-efektuak, azkar identifikatzeko aurreikusi gabeko efektu kaltegarriak eta neurri egokiak hartu ahal izateko haiek saihesteko edo zuzentzeko.
- Atzemateko ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

Jarraipen-neurriak identifikatu eta kodetu beharko dira, eta bat etorri beharko dira IAEn 6.4. apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin. Jarraipen-neurri bakoitzarentzako, honako hauek zehaztuko dira:

- Jarraipenaren xede diren ingurumen-alderdiak edo -aldagaiak, eta haiek neurtzeko adierazleak (kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak).
- Zein diren gehieneko mugak edo erreferentzia-mailak parametro kuantifikagarrientzat.
- Adieraziko da planaren zein gauzatze-fasetan egingo den kontrol bakoitza, eta nor diren eragileak edo arduradunak.

#### 6.6. Ingurumen-laburpena.

Apartatu honetan, deskribatuko da zelan txertatu ingurumen-alderdiak Planean.

Xehe-xehe aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, IAEn 6.1.1 f) apartatuan eta, hala badagokio, IAEn 6.1.1 d) eta 6.1.1 e) apartatuetan deskribatuak.

Aztertu egingo da, gainera, zenbaterainoko arriskua dagoen planak etorkizunean ingurumenean efektu adierazgarriak izateko, eta beharrezko argudioak emango dira, egiatzatzeko ezen, proposatutako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak planean txertatzen badira, oso arrisku txikia dagoela efektu garrantzitsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, IAEn gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

#### 6.7. Laburpen ez-teknikoa.

IAEk informazioaren laburpen ez-tekniko bat ere bilduko du, ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzia.

Apartatu honi, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio; bestela, erreferentziak jaso beharko dira, informazio hori erraz eskuratu ahal izateko.

### 7. Jendaurreko informazioaren izapideak eta kontsultetakoak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta informazioa eskuratzeko eta parte-hartze publikoa izateko eskubidea bermatzeko, organo erabakitzaileak, edo, hala badagokio, sustatzaileak, jendaurreko informazioaren izapidearen pean jarriko dira plan honen hasierako bertsioa, IAekin batera, gutxienez, 45 egunez. Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak, jendaurreko informazioaren izapidearen pean jartzearekin batera, kontsulta egin beharko die administrazio eta interesdun unitatei. Organo sustatzaileak erakunde eta interesdun hauei egin beharko die kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, Uraren Euskal Agentziaren bitartez (URA).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- IHOBE
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan.
- LANDARLAN Ingurumen Elkarteari
- Goierriko Landa Garapenerako GOIMEN Elkartea

#### 8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua betez, kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoak duten pertsonak egin beharko dute IAE, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. IAEk eta haren eranskin guztiek (eragin akustikoari buruzko azterketak, adibidez) pertsona horiek identifikatu beharko dituzte, eta horien tituluak eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazi beharko dituzte. Identifikazioak barne hartu beharko ditu izena, abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bererako beste edozein agiriren kodea (elkargokide-zenbakia entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Horiek dokumentuaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira, administrazioak frogagarri gisa emandako datuak alde batera utzita. Apartatu monografikoak baditu, apartatu horien arduradunak identifikatu beharko dira.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute beren artean nahiz aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada, erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana errazteko eta ez eragozteko.
2. Arreta berezia jarri beharko da adierazteko kasu bakoitzean zer datu erlazionatu behar diren beren artean dokumentu teknikoaren apartatu desberdinetan (esaterako, apartatu batean planeko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak; bi kasuetan, izen berarekin aipatu beharko dira ekintzak).
3. Beharrezkoa bada, adierazi behar da zein iturritatik lortu diren datuak.
4. Behar den apartatuetan, planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa gehitu beharko da (gutxienez, Planaren eta aurreikusitako jarduketaren informazio kartografikoa aurkeztuko da). Planoak PDF formatuan aurkeztu beharko dira, eta geoerreferentziatuta egon beharko dute; hau da, PDFek eremuaren koordinatuak jaso beharko dituzte UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema ofizialean.
5. Anali teknikoa behar bezala egin ahal izateko, pantailaratzeko PDF formatuko fitxategiez gain, planoen kopia gehigarri bat ere entregatu beharko da, -koa gehienez, shape formatuan (UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilita). Shape fitxategi horretan, 4 fitxategi hauek ZIP fitxategi batean entregatuko dira konprimatuta: .shp, .shx, dbf, .prj.

Lau fitxategiak bilduko dituen «eremua.zip» shape konprimatuaren adibidea:

- eremua\_adibidea.shp
- eremua\_adibidea.shx
- eremua\_adibidea.dbf
- eremua\_adibidea.prj

6. Plano guztiak kodea eta tituluajarrita identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
7. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten izan akatsik.
8. Dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak. Erreferentzia horiek argi eta garbi jarri behar dira, kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan.

9. Informazio jakin bat aurkezten bada dokumentuko apartaturen bat zuzentzeko eta aldi berean espedienteen zuzendu nahi den apartatua mantentzen bada, informazio berriak adierazi behar du jatorrizko dokumentuko zer kapitulu, orri, epigrafe, apartatu, lerrokada, esaldi, koadro, irudi, plano eta abar jo behar den ezeztatutzat edo ordeztutat konponketa edo zuzenketaren bidez. Aurreko informazioren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipatutako jarraibideak betetzen ez badira, izapide gehigarri bat eska dakieke, kontraesaneko edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, eta gerta liteke horrek atzerapena eragitea prozeduraren ebazpenean.
10. Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplikatzekoak diren fitxak eta formularioak erabilia. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezke, helbide honetan zehazki: <http://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenari-buruzko-izapide-elektronikoen-gida/web01-a2inguru/eu/>
11. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten bada, gehienez 30 MB izango ditu, eta bilaketak egiteko aukera eman beharko du. Dokumentu handiagoak zatitu egin beharko dira, sisteman sartuko badira.
12. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibidea txertatuko da, adierazitako apartatuetako bakoitza zer orrialdetan dagoen zehaztuta. Pdf dokumentu baten aurkibidea aurkeztean, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorri beharko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» aginduan adierazten denarekin.
13. Organo sustatzaileak beti ziurtatu beharko du datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen duela datuak transmititzen dituenean.

**Bigarrenena.**- Ebazpen hau Ordiziako Udalari jakinaraztea.

**Hirugarrena.**- Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 30a.

*Ingurumen Administrazioaren zuzendaria*  
*El Director de Administración Ambiental*



**MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
 ETA ETXEBIZITZA SAILA

<b>Ingurumeneko sailburuordea, ABSENTIAZ.</b> (Apirilaren 11ko, 77/2017 Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarria)	<b>Viceconsejera de Medio Ambiente, POR AUSENCIA.</b> (Apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarria),
--	--